

UDALAREN OSOKO BILKURA

Bilkuraren akta

Ohiko bilkura

Eguna: 2018ko maiatzaren 9a, asteazkena.

2018ko ekainaren 13an akta onesteko bilkuran egindako oharrak biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, adierazitako egunaren 20:00etan, honako zinegotzi jaun-andre hauek bildu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko. Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate-udalburu jauna da bilkuraren buru: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Bilkura eratu den unean bertan ez zeuden zinegotziak: Agustín Hervías Salinas (PP) eta Diana Rubio Lafuente (PP).

Legeak hamaika aulki esleitzen dizkio Udal honi, baina horietako bat hutsik dago, Dolores Ruiz Zuazo (PP) zinegotziak aulkiari uko egin ziolako. Uko-egite hori 2016ko abenduaren 21ean sartu zen indarrean, eta oraindik ez da egoera konpondu. Legeak hamaika zinegotzi egon behar direla esaten du; alabaina, une honetan, benetako zinegotzi kopurua hamar da.

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra da bilkurako idazkari.

Alkate-udalburu jaunak deitu du bilkura, alde zuzen eta arazko publikitatearekin. Honako hau da

Eguneko aztergaien zerrenda

1. Onestea 2018ko apirilaren 18ko ohiko bilkurako akta.
2. Dekretuak eta alkatetza-ebazpenak.
3. **Kultura, Turismoa, Festak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Batzordea.**
4. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Batzordea.**
5. **Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Batzordea.**
 - 5.1. Eskumenak eskuordetzeko hitzarmena eta kudeaketa-agindua, Arabako Foru Aldundiaren eta Oioneko Udalaren artekoa, etxeko laguntza-zerbitzua emateko.
 - 5.2. Etxeko laguntza-zerbitzua arautzen duen erregelamendua onestea.
6. **Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea**
 - 6.1. Etxeko laguntza-zerbitzuaren prezio publikoa arautzen duen ordenantza hasiera batean onestea.
 - 6.2. Oioneko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko bederatzigarren aldaketa puntuala, industria-zoruen erabilerak hedatzeari buruzkoa.
Azken puntua) Eskakerak eta galderak.

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorritik, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

1. Onestea 2018ko apirilaren 18ko ohiko bilkurako akta.

Alkate-udalburu jaunak aktari oharririk egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei.

Ez da oharririk egin.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea 2018ko apirilaren 18ko bilkuraren akta, igorritako zirriborroari jarraikiz.

Aldeko botoak: 8 (zortzi): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

2. Dekretuak eta alkatetza-ebazpenak.

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, Alkatetzaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoenak: 2018ko 76/18tik 92/18ra bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

- 3. Kultura, Turismoa, Festak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Batzordea.**
- 4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Batzordea.**
- 5. Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Batzordea.**

5.1. Eskumenak eskuordetzeko hitzarmena eta kudeaketa-agindua, Arabako Foru Aldundiaren eta Oioneko Udalaren artekoa, etxez etxeko laguntza-zerbitzua emateko.

Gamarra López Brea jauna (PSE-EE-PSOE): aurrera.

Villanueva Gutiérrez jauna (EhBildu Oion): Aldundiak eskaintzen dituen baldintzak inposaketa hutsa dira; Aldundiak ez du hitzarmenaz gain beste aukerarik eman. Ez da eztabaidatu ea beste formula bat nahi den, eta ez dago kudeaketa mota batetik bestera igarotzeko trantsizioari buruzko informaziorik. Nahitaez onartu beharreko zerbaiten gisa aurkezten da; horregatik, guk aurka bozkatuko dugu.

Alkate jauna: uste dugu hitzarmena dela tokiko interesei erantzuteko formularik egokiena. Gainera, formula horrek erantzuten dio egokien Gizarte Zerbitzuen Legearen ondoren indarrean dagoen araudi berriari, Gizarte Zerbitzuen Zorroari, alegia, baita Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzuak eta prestazioak jasotzeko eskubideari ere.

Aurrekariak:

- 1) Eskumenak eskuordetzeko hitzarmena eta kudeaketa-agindua, Arabako Foru Aldundiaren eta Oioneko Udalaren artekoa, etxez etxeko laguntza-zerbitzua emateko. Erreferentzia: Idaz/ConvDFAAyDom.
- 2) Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak (abenduarien 5eko 12/2008) ezartzen du botere publikoek bermatu behar dutela eskubideen titularrak diren pertsona guztiek gizarte-zerbitzuak eta -prestazioak jaso ditzaketela eta zerbitzu nahiz prestazio horiek eskuragarri daudela, Lege horretan ezarritako baldintzetan eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa (urriaren 6ko 185/2015 Dekretua), Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Maparen arabera. Mapa hori Arabako Foru Aldundiak eta Lurralde Historikoko udalek berretsi zuten 2016ko uztailaren 22an, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren esparruan.
- 3) 12/2008 Legearen 22. artikulua arabera, etxez etxeko laguntza zerbitzua udalen eskumena da, eta zerbitzu horrek Lurralde Historikoko udalerrri gehienetan zailtasun handiz baino exekutatu ezin daitezkeen eskumen eta funtzio ugari esleitzen dizkie udalei; izan ere, udalerrri horiek txikiak dira eta biztanle gutxi dituzte eta, ondorioz, ez dituzte zerbitzu hori behar bezala emateko beharrezkoak diren azpiegiturak. Gainera, horrek ekar lezake etxez etxeko laguntza-zerbitzuen intentsitatea eta kalitatea berdina ez izatea Lurralde Historiko osoan.
- 4) Era berean, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985) 31 artikulua ezartzen du aldundien xedeetako bat dela probintziako lurralde osoan udalerrriaren eskumeneko zerbitzuak osorik eta egoki betetzea ziurtatzea. Horrez gain, lege horretako 36. artikulua arabera, aldundiek udalei lagundu behar diete, eta arlo juridiko, ekonomiko eta teknikoan haiekin lankidetzan jardun behar dute, udal-zerbitzuei dagokienean. Aurreko hori eta baliabideen kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeko beharra kontuan hartuta,

komenigarria da Arabako Foru Aldundiak udal-eskumenekoa den zerbitzu hori ematen laguntzea; horrela, jarraipena emango litzaioke orain arteko egoerari, zerbitzu hori Arabako Foru Aldundiak eman baitu orain arte.

5) Hitzarmenak eta haren eranskinek lankidetzaz-esparru bat egituratzen duten Arabako Foru Aldundiaren eta hitzarmenarekin bat egitea erabakitzen duten udalen artean; era horretan, udalen gabeziak azpiegituretan txertatuko dira, lurralde osoan zerbitzuaren eraginkortasuna bermatzeko mekanismoak garatuko dira eta Lurraldeko herritar guztiek gizarte-zerbitzu oso eta kalitatezkoak jaso ditzaketela lortuko da; aldi berean, gainera, baliabide ekonomikoak modu eraginkor eta bikainean exekutatu eta kudeatuko dira.

6) Lankidetzaz horren lege-esparrua honako printzipio hauetan jasotakoa da, besteak beste: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen (urriaren 1eko 40/2015) 140. artikulua eta hurrengoak eta Gizarte Zerbitzuen Legearen 43. artikulua eta hurrengoak.

7) Etxez etxeko laguntza zerbitzua arautuko duen ordenantza edo udal-araudia eta zerbitzuaren prezio publikoa arautuko duen ordenantza fiskalaren onespina eta indarraldia ezinbesteko baldintza dira Hitzarmenaren eraginkortasuna eta indarraldia bermatzeko.

8) Aplikagarria da Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikulua.

9) Gizarte Ongizatea eta Euskara Informazio Batzordeak 2018ko maiatzaren 2ko saioan egindako proposamena.

Hau erabaki da:

1) Onestea eskumenak eskuordetzeko hitzarmena eta kudeaketa-agindua sinatzea, Arabako Foru Aldundiaren eta Oioneko Udalaren artean, etxez etxeko laguntza-zerbitzua emateko.

2) Arabako Foru Aldundiak eta Oioneko Udalak hitzarmenaren dute hitzarmena hilabeteko epean sinatuko dutela, etxez etxeko laguntza-zerbitzua arautuko duen ordenantza edo udal-araudia eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren prezio publikoa arautzen duen ordenantza fiskala onesten direnetik aurrera zenbatzen hasita. Agiri horiek hitzarmenari erantsiko zaizkio, I. eta II. eranskin gisa, hurrenez hurren.

3) Eduardo Terroba Cabezón alkate-udalburuari baimena ematea hitzarmen hori formalizatu dezan.

4) Iragakia ALHAOn eta Udalaren webgunean txertatzea, hitzarmenaren testu osoarekin.

Aldeko botoak: 6 (sei); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Aurkako botoak: 2 (bi); José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion).

5.2. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua arautzen duen erregelamendua onestea.

Villanueva Gutiérrez jauna (EhBildu Oion): aurkezten zaigun araudia hobetu egin daiteke, argi eta garbi. Beharrezkoa da gizarte-zerbitzuetan funtsezkoa den zerbitzu hori emateko baldintzak hobetzea. Adibidez, testuak ez du aukerarik ematen beste kolektibo batzuei ere arreta emateko eta ez du aukerarik ematen arretaren gutxieneko denbora areagotzeko; guk prestazioaren orduak % 25ean areagotu ahal izatea nahiko genuke. Araudia hobe daiteke; horregatik, abstenitu egingo gara.

Aurrekariak:

1. Eskumenak eskuordetzeko hitzarmena eta kudeaketa-agindua, Arabako Foru Aldundiaren eta Oioneko Udalaren artekoa, etxez etxeko laguntza-zerbitzua emateko. Erreferentzia: Idaz/ConvDFAAyDom.

2. Hitzarmena eraginkorra izan dadin eskatzen den baldintzetako bat da tresna araugile bat, ordenantza bat edo araudi bat onestea, zerbitzua arautzeko.
3. Zerbitzua arautzen duen araudia edo ordenantza Arabako Foru Aldundiak emandako eredu bat du oinarri. Eredu horrek laguntza eta prebentzio izaera du, eta bere xedea da erabiltzaileari etxeko laguntza eta laguntza pertsonala eskaintzea etxean bertan, mugitzeko beharrik ez izateko; horrek ahalbidetzen du erabiltzailea etxean bertan moldatzea eta komunitate-inguruan integratzea, isolamendu-egoerak saihesteko. Espedientearen erreferentzia-zenbakia: OrdServAyDom.
4. Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen VI. titulua aplikatu da.
5. Gizarte Ongizatea eta Euskara Informazio Batzordeak 2018ko maiatzaren 2ko saioan egindako proposamena.

Hau erabaki da:

1. Hasiera batean onestea udalerrian etxez etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen araudi edo ordenantza.
2. Ordenantza hori jendaurrean jartzea 30 (hogeita hamar) egunez; hala, iragarkia jarriko da Udalaren iragarki-taulan eta ALHAOn. Jendaurrean dagoen bitartean, interesdunek udal-bulegoetan eskuragarri dagoen espedientea aztertu ahalko dute, eta egoki deritzen erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahalko dituzte. Erreklamaziorik jartzen ez bada, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko erabaki bilakatuko da.
3. EUDELi eta Arabako Foru Aldundiari jakinaraztea.

Aldeko botoak: 6 (sei); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Abstentzioak: 2 (bi); José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion).

6 Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea

6.1. Hasiera batean onestea etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren prezio publikoa arautzen duen ordenantza.

Villanueva Gutiérrez jauna (EhBildu Oion): nik dakidala, tasa bat onesteko edo ordenantza fiskal bat aldatzeko beharrezkoa da memoria ekonomikoa egitea. Memoria ekonomikorik dago? Idazkari jauna: ez da tasa bat, baizik eta prezio publiko bat. Edonola ere, ez dago memoria ekonomikorik. Igorri diren dokumentuak EUDELek aurkeztutakoak dira.

Villanueva Gutiérrez jauna (EhBildu Oion): memoriarik ez badago, auzia kontestatu behar da; horregatik, memoria aurkeztu arte baztertzeko eskatzen dut.

Alkate jauna: gaia bozkatuko dugu. Igorri diren dokumentuak EUDELek aurkeztutakoak dira.

Aurrekariak:

- 1) Eskumenak eskuordetzeko hitzarmena eta kudeaketa-agindua, Arabako Foru Aldundiaren eta Oioneko Udalaren artekoa, etxez etxeko laguntza-zerbitzua emateko. Erreferentzia: Idaz/ConvDFAAyDom.
- 2) Hitzarmenaren eraginkortasuna bermatzeko baldintzetako bat da etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren prezio publikoa arautzen duen ordenantza onestea. Hitzarmenak berriaz adierazten du sinatzen duen udalak ordenantza aurreikusitakoak ez beste salbuespen edo hoberi batzuk ezartzea erabakiko balu, horiek ordaintzea Udalaren ardura izango dela.

- 3) Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren prezio publikoa ezartzeko eta arautzeko espedientea, ordenantza bidez. Erreferentzia: Ogas/ OrdFisc /OrdFiscMod2018 pp ServAyudDom.
- 4) Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauko 43. eta 45. artikulua aplikatu behar dira.
- 5) 2018ko maiatzaren 2ko Ekonomia eta Ogasuna Batzordean egindako proposamena.

Hau erabaki da:

1. Hasiera batean onestea etxez etxeko laguntza zerbitzuaren prezio publikoa eta hori arautzen duen ordenantza.
2. Ordenantza hori jendaurrean jartzea 30 (hogeita hamar) egunez; hala, iragarkia jarriko da Udalaren iragarki-taulan, Udalaren webgunean eta ALHAOn. Jendaurrean dagoen bitartean, interesdunek espedientea aztertu ahalko dute, eta egoki deritzen erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte. Erreklamaziorik jartzen ez bada, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko erabaki bilakatuko da.
3. Ebazpen hau behin betikotzat hartzea, erreklamaziorik egon ezean.
4. Erabakiaren behin betiko onarpena argitaratzea arauk ezarritako moduan eta epean.

Aldeko botoak: 5 (bost): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV) eta Luis Felipe Campos Latre (PP).

Abstentzioak: 1 (bat): Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Aurkako botoak: 2 (bi); José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion).

1. Oioneko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko bederatzigarren aldaketa puntuala, industria-zoruen erabilerak hedatzeari buruzkoa.

Aurrekariak:

- 1) Hiri Antolamenduko Plan Orokorra puntualki aldatzeko espedientea, goi-mailako arkitektoak egindako eta Oioneko Udalak sustatutako proiektu teknikoari jarraikiz.
- 2) Arabako Errioxako Kuadrillarako lan egiten duen goi-mailako arkitekto Alberto Julián Vigalondok sinatutako txostena eta txosten juridikoa daude.
- 3) EAeko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen (ekainaren 30eko 2/2006) 147. artikuluko h) atalean ezarritakoa aplikatu behar da.
- 4) 2018ko maiatzaren 2ko Hirigintza Batzordean egindako proposamena.

Hau erabaki da:

1. Hiri Antolamenduko Plan Orokorren bederatzigarren aldaketa puntualaren espedientea onestea: industria-zoruen erabilerak areagotzea. Aldaketa hori Luis I. Hernández Mayoral goi-mailako arkitektoaren proiektu teknikoarekin bat dator eta Oioneko Udalak sustatu du.
2. Hasiera bateko onespén horrek automatikoki eteten ditu lursailen partzelatze-lizentziak, eraikinak eta eraispénak, aldaketa puntualaren esparruan, aldaketa horren eragina jasaten duten kasuetan. Lizentzien eteteak gehienez ere bi urte iraungo du, eta aldaketa behin betiko onesten denean iraungiko da.
3. Ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratua duen espedientea jendaurrean jarriko da 45 (berrogeita bost) egunez; horretarako, iragarkia jarriko da Udalaren iragarki-taulan, ALHAOn eta probintzian ale gehien saltzen dituen egunkarietako batean. Jendaurrean dagoen bitartean, eragina jasango dutenek egokitzat jotzen dituzten alegazioak egin

ahalko dituzte. Administrazio-espedita eta dokumentazio teknikoak udal-bulegoetan egongo dira, interesdunek azter ditzaten.

4. Sektorean eskumenak dituzten administrazio publikoak, Barriobustoko Administrazio Batzordeak eta Labrazari berri ematea.

Azken puntua) Eskerak eta galderak.

Jorrazeko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:55ean (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oionen, 2018ko maiatzaren 23an.

Udaleko idazkaria:

Presidenteak OE